



Aplikazioak

A.1.- ALa, aukerak
antzemateko

1. Sarrera

Pilula honek deskribatzen du nola informazio egokia etengabe edukita errazagoa den aukera berriak antzematea, dela enpresaren jarduera merkatu berrietara edo teknikoki berriak diren produktuetara dibertsifikatzeko erabakiak hartzeko, dela zuzenean negozio aukera berriak identifikatzeko.



Aukeran antzeman

2. Negozio aukera zuzenak

Adimen Lehiakorrak aukera ematen du erakundearen jardueran eragin zuzena duela antzematen den informazioa biltzeko.

Lizitazioak

Web orri ugari daude hainbat arlo eta sektoreren gaineko lizitazio berrien argitalpenak monitorizatzea ahalbidetzen dutenak, esaterako [devex](#) edo [TED](#) (Tenders Electronic Daily). Mota horietako lehiaketak garaiz antzemateak (lehiaketa publikoak edo pribatuak) prozesuari itxaropen hoberekin eta arrakastarako berme handiagoarekin heltzea ahalbidetzen du. Gainera, lizitazio baterako proposamen bat planifikatzeko orduan, merkatutik edo agente lizitatzaillearengandik lortzen den informazioa lagungarri izan daiteke proposamena nabarmen hobetzeko.

Finantzaketa programak

Programak daude eremu jakinetan proiektuak finantzatzeko, esaterako I+G+b alorrean, nazioarteratzean, ekintzailertzan, prestakuntzan, giza baliabideetan, etab. Toki erakundeek (Udalak, diputazioak, eskualde gobernua), erakunde estatalek (Ministerioak, Estatuko Agentziak, etab.) edo nazioartekoek (Europa Batzordea, Banketxeak eta Nazioarteko erakundeak, etab.) sustatu ohi dituzte programa hauek. Mota honetako programak monitorizatzeak aukera ematen du erakundearen proiektu eta ekintza estrategikoetarako beste finantza bide batzuk aparte eskuratzeko.

Lege eta arauen aldaketak

Lege eta araub aldaketak monitorizatzeak aukera ematen du legeetan edo arauetan merkatu berriak irekitzeko aukerak ekar ditzaketen aldaketak antzemateko (oztopoak desagerraraztea) edo beste lankide batzuk baztertzeko (arau berriak).


Jabetza Intelektuala

Patenteak informazio iturri ona dira lehiakideen garapenen egungo egoera ezagutzeko eta norantz jo dezaketen jakiteko aztarma bat ere bai. Gainera, negozio aukerak ekar ditzakete, lehiakideei hainbat herrialdetarako sartzeko oztopo gisa arituta.

3. Dibertsifikazioa

Enpresek aldatu behar dute, egungo merkatuan lehia jarraitu ahal izateko; beraz, erabakiak hartu behar dituzte merkatu, sektore edo teknologia berriei dagokienez. Une honetan, zalantza asko planteatzen dira. Nola egingo du? Merkatu geografiko berriak? Nik dakidana bezero diren beste sektore batzuetan aplikatuta? Nire ezagutzetan oinarrituta produktu berriak garatuta?

Dena dela, informazioa funtsezkoa da. Aukera bilatu eta garatzeko prozesuan barneko ahalmenak eta ALak ingurunearen gainean ematen digun informazioa konbinatuko ditu.



1 irudia: Dibertsifikaziorako balio duten barneko ahalmenak eta kanpoko informazioa

Merkatu berrietara edo produktu berrietara dibertsifikatzeko, beharrezkoa da prozesuari aurre egitea.

- Informazio berme nahikoekin
- Jarraibide azkar eta eraginkorren bitartez
- Teknologia eta teknologiaren heldutasun maila abiapuntu hartuta
- Enpresaren ahalmenak aintzat hartuz
- Barruko zein kanpoko adituen inputarekin

Adimen Lehiakorrak lagundu egiten du alderdi teknologiko, merkadologiko, sektorial eta normatiboen gaineko informazio erabilgarria eta garrantzitsua edukitzen, bai eta jabetza intelektualaren eta gai sozialen gainean ere, dibertsifikazio prozesuari ahalik eta berme handienekin heltzeko.